

**EUSKERA AHOLKU BATZORDEA**

Legegintzaldiko bigarren bilera

2018-11-14 Vitoria-Gasteiz 14-11-2018

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburua, Euskaltzaindiaren buru eta Batzorde kideok, arratsalde on.

Ixten ari garen urtea berezi berezia da. Euskaltzaindiaren mendeurrena ospatzen ari gara, euskara batuak 50 urte, sasoi bizian, bete ditu eta **Euskaraldia jaio egin da.**

Urte berezi berezia. Atzera begiratzeko urtea eta etorkizuneko erronkei aurre egitekoa.

Euskarak behar zuelako sortu zen, 1918an, Euskaltzaindia. Antzeko behar batetik etorri zen, orain 50 urte, euskararen batasuna. Beharrezkoak ez ezik, Euskaltzaindia eta euskara batua, ezinbestekoak ditugu etorkizuna josten jarraitzeko. Baina, egun, bizi dugun bidegurutzean, bestelako bizigarriak behar ditugu eta horretarako jaio da Euskaraldia.

“Ibili dabilenak daki bidearen berri.” Aurreko hamarkadotan milaka hiztun irabazi ditugu, batik bat, hezkuntza sistemaren euskalduntzeari eta euskaltegiek egin duten lanari esker.

Bidea egin dugu, bidea ezagutzen dugu, **bideari jarraipena eman behar diogu.**

Bide hau ez zen posible izango atzean gizartearen babesa eta bultzada izan ez bagenu. Bide horretan, gaur ere, Euskaraldia posible da gizarte-adostasuna landu eta zaindu delako.

Euskaraldiak auzolanaren, lankidetzaren, elkarlanaren bidea erakusten digu. Euskaraldiak bidea elkarrekin egiten jarraitzeko gonbitea egiten digu. Horri esker errazagoa izango da, baita ere, euskara indartzeko bidean berriz ere asmatzea.

Asmatzeko estrategia behar da: **hizkuntza politika behar-beharrezkoa da;** letra larriz.

Euskararen Aholku Batzordearen gogoeta-gunea behar-beharrezkoa da; letra larriz. Foro honetan elkartu, hausnartu eta urteko lanaren jarraipena egiten dugu:

- Hiztunen aktibazioa.
- Euskararen sustapena lan-munduan.
- Hiruko Ituna Nafarroako Gobernua eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoarekin.
- Euskararen sustapena ingurune digitalean, hedabideetan eta gazteen artean.

Urte berezi berezia izan da euskararentzat eta, lan eskerga egin da, mugarri izango diren zenbait ekimen bultzatzeko.

Batzorde honetan zaudeten guztiei, nire aldetik, Lehendakari naizen heinean, eskerrik asko bidean laguntzeagatik eta eskerrik asko Batzorde honetan Euskararen aldeko Aholkuak emateagatik, beti erakusten duzuen **prestutasun eta ilusioarengatik.**

Hasierara itzuliz bukatzeko: eskerrik asko, nola ez, Euskaltzaindiari asmoak berritu eta etorkizunari begiratzeko aurten egin duzuen ariketa sakonagatik.

Zorionak ehun aldiz!